

**2019 RENÉ CASSIN SARIAK
PREMIOS RENÉ CASSIN 2019**

2019-12-10 Lehendakaritza 10-12-2019

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Eusko Legebiltzarburu andrea eta zurekin batera bertaratutako, herri agintari eta herri ordezkariok, epaimahai kideok, jaun andreok, egun on.

“Gizaki guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubideetan berdinak; eta, arrazoiz eta kontzientziaz horniturik, elkarren arteko senidetasunez jokatu behar dute.” Hori da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren aurreneko artikulua.

Ez da erraza aldi berean hain oinarrizkoa eta hain beharrezkoa, hain agerikoa eta hain eguneratua den ideia bat aurkitzea.

Gaur 71 urte beteko dira Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu zenetik, gizateriaren historian mugarria. Adierazpen hori ospatzea beharrezkoa da gaur egun. Sustatu eta indartu egin behar dugu, sendotu eta zabaldu, **mehatxutik libre ez dagoelako**.

Hain zuzen ere, duen garrantziagatik, abenduaren 10ean Giza Eskubideen Eguna ospatzen dugu Euskadin. Ekitaldi honetan gogoan dugu René Cassin, Baionako euskaldun unibertsala eta Adierazpenaren erredaktore nagusietako bat. Sari hau emateak, urtero, bereziki aipagarria den konpromisoa duen pertsona batengan arreta jartzeko aukera ematen digu.

Este año el *Premio René Cassin* nos ayuda a hacer visible **toda una trayectoria. Una vida de compromiso con los Derechos Humanos.**

El jurado ha decidido que esta distinción se conceda este año a Don Federico Mayor Zaragoza. Felicito al jurado por esta decisión y, de todo corazón, felicito al premiado. Zorionak bihotzez!

Su trayectoria, su carisma y su palabra representan un compromiso sostenido con un alto valor de ejemplaridad. **Siempre al servicio del bien común.** Ese compromiso es un auténtico estímulo para la solidaridad, la justicia y la igualdad. Un estímulo para reaccionar ante los atropellos y retrocesos en materia de Derechos

Humanos y Convivencia. Un estímulo para la Paz, la Alianza de civilizaciones y el diálogo como vía para solucionar los conflictos.

Hoy su voz se alza y escucha frente a las corrientes neo-totalitarias, el auge de la extrema derecha o el unilateralismo. Es una voz autorizada ante la insolidaridad, la discriminación y la desigualdad; también frente a la pasividad ante la emergencia climática. Una voz autorizada y llena de autenticidad. Coherente y positiva en el impulso continuado de un **compromiso social y político por la Justicia y la Paz**.

La palabra de Don Federico Mayor Zaragoza es un estímulo inspirador. Invita y empuja a promover una transformación social e internacional tan pacífica como profunda. Es un estímulo para **cultivar la inquietud social en las personas más jóvenes**. Un estímulo para superar la resignación o la acomodación de las generaciones maduras.

Beharrezkoa da gogoratzea, halaber, Federico Mayor Zaragoza Euskadiren laguna izan dela eta dela.

Ahal izan duen neurrian, gure Herrian bakea eta bizikidetzat lortzen lagundu izan du. Batzuetan korrontearen kontra egin du, horren faktura gogorra ere ordainduz. Horregatik ere, estimatzen dugu epai mahaikideek hartu duten erabakia.

Bere ibilbidean zehar, nazioarteko harreman politikoaren gailurrean mugitu da Federico Mayor Zaragoza. Horrek ez dio eragotzi gizartearen oinarrian dauden ekimenetan parte hartzea, edo **gizarte erakunde xumeenekiko konpromisoa hartzea**.

Federico Mayor Zaragoza ha tomado parte en la cumbre de las relaciones internacionales. Esto nunca le ha hecho olvidar y apoyar las más modestas iniciativas en la base de la sociedad. Lo ha hecho siempre con la mejor predisposición, estimulando la inquietud por la justicia, la convivencia, los derechos humanos y la paz. Defendiendo siempre, con plena convicción y dedicación, **los principios y valores de la Declaración Universal de los Derechos Humanos**.

Estimado Federico, todas y todos los presentes deseamos que este Premio René Cassin suponga para ti un reconocimiento y un agradecimiento a tu dedicación personal, tu compromiso vital y tu ejemplo con las generaciones más jóvenes.

Deseamos seguir compartiendo tu capacidad de **estimular lo mejor de la condición humana**, en este día, en el que además de la legalidad, tenemos que tener también a flor de piel la sensibilidad humanista.

Zorionak Federico Mayor Zaragoza jauna eta eskerrik asko!